



SEGURTASUNEKO SAILBURUAREN 2025EKO MAIATZAREN 2KO AGINDUAREN BIDEZ (EHAA, 94. ZK., 2025EKO MAIATZAREN 21EKOA) DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZESUAK, SEGURTASUNEKO ADMINISTRAZIOKO LANGILE LAN-KONTRATUDUNEN EREMUAN MENDEKOAREN ETA OSTALARITZAKO LAGUNTZAILEAREN LANPOSTUAK BETETZEKO.

LEHEN AZTERKETA (Euskalduna Jauregia. Bilbo)


ANTOLAKETA ARGIBIDEAK

Azterketa, eguna, ordua eta lekua

- **Data:** 2025eko urriaren 24a, ostirala
- **Azterketa ordua:** 10:00
- **Lekua:** Euskalduna kongresu eta musika Jauregia

Abandoibarra, nº 4

48001- Bilbao



Kanpoko 2. gelan egingo da azterketa.


Kanpoko 2. aretoa parkearen fatxadan dago, eta kanpoaldetik sarbide zuzena du. "SEGURTASUN SAILEKO EPEa" kartelarekin seinaleztatuta egongo da.



Planoetan, sarrera kolore URDINEKO geziarekin adierazten da.



Komunak daude 2. gelaren kanpoaldean (aldameneko gela beheko planoan)



9: 30etik aurrera sartu ahal izango zara, eta 10:00etan atea itxiko da.



Kanpoko 2. gelako sarreran, hautagai bakoitza identifikatuko da zuen NANA, pasaportea edo gidabaimenarekin. Erakundeko pertsona batzuk egongo dira NANari begira zure datuak bat datozela egiaztatzeko bere zerrendakoekin.

Identifikazioa amaitzen dutenean, erakundeko pertsona bat hurbilduko da, eta pertsona hori zure erreferentea izango da, eta zure lekuan esertzen lagunduko dizu. Erreferente hori zure esanetara egongo da azterketa osoan, zuri laguntzeko eta zure zalantzak argitzeko.

Erreferentziazko pertsona hori txaleko hori batekin identifikatuko da.

Nola iritsi?

- Autobusez etor zaitezke Bilboko autobus-geltoki intermodala Euskalduna Jauregitik kilometro batera dago (14 minututik behin), eta hiriko garraiobide guztiekin lotuta dago (tranbia: Jauregitik 8 minutura; autobusa, Bilbobusen 26., 56. eta 62. lineak Euskalduna parean edo hurbil geratzen dira, metroa (San Mames geltokia)...).

Helbidea: c/ Gurtubay, 1
48013 - Bilbao



- Tranbían etor zaitezke eta Euskalduna geralekuan jaistea
- Autoz bazatoz, autobus-geltoki intermodaleko aparkalekuan aparka dezakezu, eta, ondoren, oinera joan edo garraio publikoa hartu Euskalduna Jauregiraino, edo, bestela, Euskalduna Jauregiko aparkalekuan bertan aparkatu. Irudian ageri den bezala sartu ahal izango zara bertara:




- Trenez bazoaz, Abandoko geltokia Euskalduna Jauregitik 2,4 km-ra egongo da (25 minutu oinez). Geltokia hiriko garraiobide guztiekin konektatuta dago; horrela, iristen zarenean, metroa, tranbia eta autobusa hartu ahal izango dituzu (Bilbobusaren 26., 56. eta 62. lineek Euskaldunaren parean edo hurbil dute geralekua), Euskalduna Jauregiraino hurbiltzeko.

Helbidea: Bilbo-Abando Indalecio Prieto

0-1 solairua

48008 – Bilbao



Zer eramaqn behar duzu azterketa egiteko?

- NAN (Nortasun Agiri Nazionale), pasaportearen edo gidabaimena.
- Boligrafo bat.